

Garai hartako heroia

Felipe Juaristi

"Gure garaiko heroia"
Mikhail Lermontov
euskaratzailea: Jose Morales Balda
Ibaizabal, 1996

Badira zenbait liburu, hasi eta bukatu behar direnak, egunean bertan ahal dela, egonezina, gaitza eta mina sortzen baitituzte, hurrengorako utziz gero. Nobela handiak dira, beti iraungo dutenak eta gaur atzo bezala denboraren iragaiteari iletatik tiraka eusten diotenak. Errusiar literaturan esaterako nobela ederrak ditugu, tartean hau, Lermontoven "Gure garaiko heroia".

Lermontov poeta izan zen, Pushkin handiaren jarraitzaile. Pushkin hil ondoren, "Poetaren heriotza" izenekoa idatzi zuen, non nabarmentzen diren sentimentuen sakontasuna, hau da, tristura latza. Poema horretan noblezia eta Tsarraren kortea salatzen zituen, Pushkinen heriotzaren erruduntzat joz (gogoratu behar ohorezko-borrokan hil zutela Pushkin. Horretan ere Lermontov jarraitzaile: ohorea gordetzeko borroka batean hil zuten hura bera ere). Lermontov Kaukasora bidali zuten (soldadu zen), orain txetxeniarrak eta lehian dabiltzan lurraldera. Han ikusitakoa baliogarri izan zitzaion gerora.

"Gure garaiko heroia" bost ataletan dago banatuta: Bela, Maxim Maximitx, Taman, Meri printzesatxoa eta Fatalista. Kaukasora bidalitako Petxorin ofizial gaztea da bost atal horiek elkarrekin lotzen dituen haria. Petxorin pertsonaia garaiko pentsamenduaren eredu da. Berak kontatzen digunez, gaztetan jaiak eta festak, olgetak eta dantzak ezagutu omen zituen, baina azkenik hori guztia maite zuen gizarteaz aspertu egin zen. Kaukasora joan zen, borrokan pizgarriren bat aurkituko zuelakoan, odola irakiten jartzen den une hori alegia, heriorengandik hurbil. Baina alferrik, gudarien artean, odol artean, asperra berriro ere. Etsipena, asperra, ezertarako gogorik eza, horiek dira Petxorinen ezaugarriak; ia-ia Pushkinen Eugeni Oneginenak berak eta berberak. Eta Petxorin hurrengo belaunaldikoa izanik, Oneginen hurrengoa noski, Errusian gauzak ez zirela asko aldatu esaten digu horrek.

Horretaz gain, esan ere nahi nuke, itzulpena oso ona dela. Eta testuaren beraren plazerraz gain, euskararena erantsi behar zaio. Josu Moralesek errusiarrak itzuli ditu batik-bat, eta nik haren itzulpenetatik Pushkinen "Saltan Erregea" azpimarratuko nuke, Desclée de Brouwer argitaletxean aurki daitekeena, hain zuzen.

El Diario Vasco, 1996-08-24